

Direction de la communication,
du dialogue citoyen et de l'attractivité territoriale
05 59 46 60 40
communication@bayonne.fr

06.06.25


PRENTSAGIRIA

UDAKO ERAKUSKETA DIDAM-EN

PLANTU & REZA

« Munduari begira »

2025eko Ekainaren 6tik urriaren 5era



Ekainaren 6tik urriaren 5era Didam-en, Baiona Hiriak Plantu eta Reza-ren lan amankomun eta indibidualak udako erakusketa aurkezten du. Bi artista engaiatu, Plantu frantses prentsa marrazkilaria, eta Reza argazki-kazetaria. Reza & Plantu "Munduari begira" izeneko erakusketa honek, bi artistek duten unibertso amankomuna ezartzen du argitan, Planturen marrazki dibertigarri eta satirikoa eta Rezaren argazki ikonikoak nahasten dituena. Irudi serie honetan, Plantu eta Reza solasean ari dira, elkar osatzen edo kontra jartzen dira, eta gaur egungo mundua zalantzan jartzen duten gai asko jorratzen dute. Azken hamarkadetako aktualitatearen lekuko bi gizon pribiligatuek, beren ibilbidean zehar, elkartasuna, elkar-bizitza eta zentzu kolektiboa galdezkatzen dituzte. Didam-ek giza bidai dibertigarri eta hunkigarri bat proposatzen du, arkatzen puntan edo argazki tresnak harrapatua, ekainaren 6tik goiti urririk Didam-en ikusgai.

Plantu eta Rezaren arteko lankidetzak 2011ko apirilean sortu zen, Caen-en iragan ziren Prentsa marrazki Nazioarteko topaketan kari. Plantuk, orduan, Reza harritzen du bera irudikatzen duen marrazkia luzatzen diolarik. Keinu horrek mundu desberdinetako bi gizonen arteko lanaren hasiera adierazten du, errealitatea erakusteko eta gure garaia galdezkatzeko borondatea dutena ere bai. Batak ironiaz eta sinboloz komentatzen du aktualitatea, besteak sentsibiltatez

eta errealismoz dokumentatzen du. Haien proiektu amankomuna irudien bidegurutzean kokatzen da: argazki-kazetaritzaren eta prentsa marrazkiaren arteko elkarriketa bisuala. Elkarlan horrek pantailan itxura hartzen du, beren obrak elkarren ondoan ezarririk, egiazko sorkuntza baten bidea hartuz.

Planturen marrazkiak Rezaren argazkietan atzematen dira, haiekin elkarreragiten dute, luzatu egiten dituzte, batzuetan galdezkatzen dituzte. Fusio horretatik obra hibrido bat sortzen da, emozioa, satira eta hausnarketa nahasten dituen. 2021ean, Gallimard argitaletxean argitaratutako **Begirada gurutzatuak** liburuak haien sorkuntza amankomunak biltzen ditu. 2023an, haien lana Pariseko Gizakiaren Museoko erakusketa batean aurkeztua da. Gaur, Didam-ek harrera egiten die haien lanei. Baionan aurkeztua den erakusketak argazkigintza eta prentsa marrazkiaren artean solasa sortu nahi du, gaurko munduaren erronkak galdezkatzeko (gerra, migrazioak, ekologia, giza eskubideak, adierazpen askatasuna...) aldi berean, artista bakoitzaren lan pertsonala ikusteko gune berezi bat eskainiz. Plantuk eta Rezak gogorarazten dute irudia hizkuntza unibertsala dela kontzientziak iratzartzeko gai dena. Elkarrekin, artista eta kazetarien funtsezko jokoa berresten dute munduaren gorabeheren aitzinean, begirada gurutzatua, humanista eta engaiatua proposatuz.

Artista humanista gisa, anaitasunera eta trukaketara etengabea deitzen dute. Haien ibilbideek antza dute, munduari egiten dizkieten begiradak gurutzatu eta zalantzan ezartzen dira, eta haien medioak -marrazkia edo argazkia- halako bat egin eta osatzen dira.

ERAKUSKETAREN INGURUAN – Mediazio egitaraua

Erakusketaren inguruan, uda honetan idazkera tailerrak, familia tailerrak, bisita gidatuak, inklusiboak ... proposatuak dira. Bestalde, Baiona Garaiko espazio soziokulturalarekin batera, argazki erreportaiak eta prentsa marrazkiaren inguruko proiektu tematikoa eramana da. Horren kari, bertako argazki-kazetari batekin topaketa, argazki erreportai baten errealizazioa, eta Cartooning for Peace-ko bi kideek animaturik, prentsa marrazki tailer bat proposatuak dira. Lan horren erakusketa ikusgai izanen da ere Plantu-Reza-ren erakusketaren estrenean.

Didam – Info pratikoak

Erakusketa guztiak urririk dira, eta bakoitzak animazio (haur tiki, publiko handiarentzat...) eta mediazio egitaraua izanen du.

Ekainatik urrira: asteartetik igandera, besta egunak barne (maiatzaren 1a, abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a izan ezik) arratsaldeko 2etatik 7.30era.

DIDAM, arte garaikideko gunea / Baiona Hiria – Lesseps kaia, 6 / / 05 59 46 63 43 / didam.bayonne.fr

Baiona Hiriko prentsa harremanak - 05 59 46 63 01 - presse@bayonne.fr